

JOKALARI BETERANOEN NAFARROAKO XAKE TXAPELKETA.

(2009.go apirilaren 8tik 12ra).

Iruñeko Oberena taldearen lokalean jokatu zen, asteazkenetik igandera arte, arratsaldean. Jokalari bakoitzak 90 minutu zituen partida osatzeko, jokaldiko 30 segundoko gehiketaz. Soilik 5 jokalarik parte hartu zuten. Iaz 10 izan ziren. Orduan larunbatetan jokatu zen, Neguko Txapelketarekin batera. Ematen du erosoagoa dela modu horretan, Aste Santuan eta jarraian baino.

AZKENEKO SAILKAPENA.

1) Rafael Ruiz Escobar – 3'5 puntu.

- 2) Julio Vazquez Arellano – 2'5 puntu.
- 3) Jesus Maria Gonzalez Pabollet – 2 puntu.
- 4) Isidro Diaz Redondo – 1'5 puntu.
- 5) Diego Moral Barragan – 0'5 puntu.

Lehenengo egunean, partidarik garrantzitsuena jokatu zen: Jesus Maria Gonzalez Pabollet (iazko txapelduna), txuriekin, Rafael Ruiz Escobarren aurka. Azken honek aurretik 4 aldiz jarraian irabazia zuen Txapelketa hau (iaz ez zuen esku hartu). Gainera, Ruiz Escobar lehenengo zerrendaburua zen eta Gonzalez Pabollet bigarrena. Ruiz Escobar gailendu zen.

Isidro Diazek eta Diego Moralek berdindu zuten, beheko postuetatik aurrera egoteko borroka aurreikusten zen lehia batean.

Bigarren egunean, Diego Moralek, txuriekin, galdu zuen Gonzalez Pabolleten aurka. Julio Vazquezek eta Isidro Diazek berdindu zuten.

Hirugarren egunean, Ruiz Escobarrek, txuriekin, Diego Moral garaitu zuen. Gonzalez Pabolleten eta Julio Vazquezen arteko partida xaketik kanpoko arrazoi batek bideratu zuen: Sakelako telefonoak jo zion Gonzalez Pabolleti, bere kalterako. Zoritzarreko araua, bide batez errana. Une horretan partida ez zegoen erabakita.

Laugarren egunean, Txapelketaren irabazlea ezagutu zen. Borroka handia egin zuen Julio Vazquezek, txuriekin, Rafael Ruiz Escobarren aurrean. Final estuan puntua bereganatu zuen honek, hala ere. Isidro Diazek, txuriekin, galdu zuen Gonzalez Pabolleten aurrean.

Bosgarren egunean, Rafael Ruiz Escobar-Isidro Diaz lehia berdinketa izan zen. Julio Vazquezek, beltzekin, Diego Morali irabazi zion eta, horrela, bigarren postua eskuratu zuen. Aurreko urtean, Julio Vazquez bosgarren izan zen.

Jesus Maria Gonzalez Pabollet, Isidro Diaz eta Diego Moral, hirugarren, laugarren eta bosgarren geratuta, iaz baino okerrago sailkatu ziren. Iaz, Gonzalez Pabollet lehenengo izan zen, Isidro Diaz hirugarren eta Diego Moral laugarren.

TXAPELKETAKO PALMARESA.

2003-04 denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.
2004-05 denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.
2005-06 denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.
2006-07 denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.
2007-08 denboraldian: **Jesus Maria Gonzalez Pabollet**, garaile.
2008-09 denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2009-04-12.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.